

**ZORION-BIDETIK**

Bizitza zear  
zorion-aize  
nai arnastu?...  
Mingain zitalez  
ez jñor, otoi,  
zirikatu.

Euzki-estaía  
illaun zuria  
garitzan lez,  
bare ta mazal  
zabiltz, tai barik,  
on egiñez.

Ezti, me, samur,  
urdin, sutsua  
bedi nainun,  
gotzonarena  
zure dirdaizko  
begirakun.

Zure abotsa,  
ixil, geldia  
espe iduri;  
uler bearrak  
bakar ulertuz  
soil ta urduri.

Zure eskuak, *zeri*  
Lili-buru bi  
txit zuriak,  
estutzekoan  
usain gozoa  
darienak.

Ta, zure oiñak?  
Aingeru-ego  
arin-lerden:  
txarrerako sor,  
onerako gert  
an ta emen.

Eta azpikeriz  
oiñok ba'zinduz  
min-zauritu,  
ager zakioz  
lore antzera  
barre argitsu.

Eguzkiak noiz  
goria peitu?  
Egundo bez.  
Olan bizirik  
beti zara zu  
zori onez.

**ESKU UTSAK**

Ez dakit nik, baiña bai laiño ta mendiak..  
Min dot biotz erdian, oso ikaragarri;  
lotsa naz soin dardara, matrail-azal gorri.  
Naita luzez bizi, uts dodaz esku biak.

Min baltzez zamaturik mozkortua nabil:  
negar-ibai begiak ta buru apala.  
Norantza zuzen daiket ene urrats argala?  
Ai, ene! Zer gerta yat? Eskale naz zirtzil.